



Euskaraz bai dinamika herrietan

EUSKAL HERRI MAILAKO ERAGITE-EKINTZAK - 2010

'Euskaraz bai dinamika herrietan' egitasmoaren orain arteko lan ildo soziala izan da, nagusiki. Gizarte eragile eta entitateek beren erakundeetan euskararen garapen osoa erdiesteko eragiten jarraituko dugu, eta hizkuntza-politikaren lanketa ere egingo dugu.

Urteotan egitasmoaren egitekoa izan da Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutarazi eta hedatzen laguntzea. Orain, Ziurtagiriaren Elkarte sortuta, ziurtagiriaren kudeaketa osoa Elkartearen gain geratuko da. 2010etik aurrera, EBDHK ez du jada Ziurtagiriari dagokion eragite-lana bultzatuko.

1. Herriko-etxeen hizkuntza-politikaren bigarren neurketa (otsailen).

2006ean egindako neurketaren alderaketa egingo da 2010ean. Bigarren neurketa eginez, urteotan Herriko-etxeek egindako ibilbideak euskararen garapenean ondorio positiborik izan duen aztertu nahi da. Era berean, duela lau urte neurtu ez ziren herrietan neurketa egiteko asmoa badago. Herrietako euskalgintzako eragileen laguntzaz egin nahi da ebaluazioa. Zeregina hau da:

- Landa-lana egin eta galdetegiak osatzea. Neurtu beharrekoak galdetegian daude zerrendatuta, eta landa-lanaren bidez aztertuko dira. Horretarako:
 - Neurketa egingo duen lantaldea osatu eta galdetegiak ezagutu eta zalantzak argitu.
 - Landa-lana egin. Erne! Galdera gehienetan agiriak, argazkiak edo bestelako dokumentazioa aurkeztea eskatzen da, erantzunak objektibatzeko.
 - Markatutako epean galdetegiak bete eta Kontseiluari helarazi. Emaitzak matematizatuko dituen aplikazio informatiko batean sartu beharko dira datuak.
- Galdetegiaren lau ataletako batek Herriko-etxearen hainbat informazio ofizial aztertzen ditu. Aurreko urratsarekin batera, Herriko-etxearen arauekin loturiko galdetegia erantzuteko informazioa eskatu Herriko-etxeari (euskara teknikariak dira informazio horiek eskaintzen ahal dutenak). Erne! informazioa lortzea luza daiteke. Urratsak:
 - Aurkezpen-gutuna bidali Herriko-etxeei.
 - Harremanetan jarri euskara teknikariarekin.
- Bildutako datuen inguruko kontrasteak egitea, galdetegiak behar bezala osatzeko, eta Herriko-etxeari erantzuteko eskubidea emateko.

2. Gizarte-eragileek eta norbanakoek konpromisoak hartu eta betetzea.

Herriz herri adosten diren ekintzez gain, Kontseiluak urtero proposatuko ditu konpromisoen ezarpena bultzatzeko Euskal Herri mailako bizpahiru lanketa, herri guztiekin une berean eta erabakigarriak diren zenbait alorrekin garatzeko. Ekintzak garatzeko oinarrizko informazioa eta

EGUTEGIA

2010

Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

Plangintza

Udalen Hizkuntza-
Politikaren
NEURKETA

oporrak

Establezimenduetako
langileen euskalduntzea
eragitea

Udalen Hizkuntza-politikaren NEURKETA Udalen datuak



Mintegia herrien beharrak ezagutzeko (horrekin Kontseiluak bere eskaintza prestatu)

Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
-----	-----	-----	-----	-----	-----

Oporrak

Merkatalgune handien hizkuntza-paisaiaren euskalduntzea eragitea

Oporrak



Mintegia Kontseiluak bere eskaintza aurkezteko herriei



www.euskalgintza.org